

# Dock Of The Bay®

DEIALDI BERRIA

DONOSTIAKO 14.  
MUSIKA  
DOKUMENTALEN  
NAZIOARTEKO  
JAIALDIA.

---

OINARRIAK 2021.

# Dock Of The Bay®

## DOCK OF THE BAY

Musikaren mundu jori hori bere alderdi tematiko eta formal desberdinetan jasotzen duten ez fikziozko filmak hedarazten diharduen jaialdi bat da Dock of the Bay.

Dock of the Bay Jaialdia Donostian izango da 2021ko ekainaren 7tik 12ra.

## DOCK OF THE BAY SAILAK

Dock of the Bay-k atal desberdinak izango ditu bere programazioan. Lehiaketaren atalak bi izango dira:

- Nazioarteko film luzeen lehiaketa atala: filmek 60 minutu baino gehiago iraun behar dute.
- Film laburren lehiaketa atala: filmek 30 minutu iraun behar dute gehienez. Antolatzaileek iraupen luzeagoko obrak sartzeko aukera erabaki dezakete.

## ARAUAK

Aurkeztutako lanek baldintza hauek bete behar dituzte:

- **Ez fikziozko filmak** izan behar dute, **musikaren eremua** –bere edozein alderditan– izan behar du gaiak, baita **narratiba konbentzionalen mugekin ereesperimentatzen** duten filmak ere, betiere haien diskurtsoaren muina musika denean.
- Inskribatutako filma **Gipuzkoan estreinatuko** da, Dock of the Bay Jaialdian.
- Filmen inskripzioak **obren** ekoizleek, errealizado-reek edo **legezko ordezkariak** formalizatu behar dituzte.
- Jaialdian parte hartzeko, filmak **2019ko azaroa** eta gero egon behar du ekoiztua, eta ezin izango da aurretik estreinatua egon ez areto komertzialetan ez plataforma digitaletan ere.
- Jaialdian **film luzeak** bakarrik aurkeztu ahal izango dira lehiaketara. Jaialdiarentzat film luzea izango da **60 minutu** baino gehiago irauten duena.
- Filmak proiektatzeko **DCP** formatuko proiektzio-kopiak **bakarrik** onartzeko dira.
- Filmak onartzeko azken eguna: **2021ko apirilaren 1ean**.
- **Hautaketa Batzordeak** –antolatzaileek izendatutako kideek osatuak– aukeratuko ditu **Sail Ofiziala 2021** osatuko duten filmak.
- Film bat **inskribatzen** denean horrek esan nahi du **onartu** egiten direla araudi honetan biltzen diren baldintzak.

# Dock Of The Bay®

## IZEN EMATEA ETA PARTE HARTZEA

Obren inskripzioa **Festhome** online plataformaren bidez egin ahal izango da.

### **FESTHOME**

Film luzeak jatorrizko bertsioan aurkeztuko dira, azpitituluak eduki behar dituzte gaztelaniaz edo ingelesez, jatorrizko hizkuntza gaztelania ez denean.

Film laburrek azpitituluak eduki behar dituzte gaztelaniaz, jatorrizko hizkuntza gaztelania ez denean.

Maiatzaren 1etik aurrera jakinaraziko da zeintzuk izan diren hautatutako filmak.

Jaialdiko Zuzendaritzak lan bakoitzaren erakustaldia-  
ren ordena eta data adostuko du.

Film bat jaialdian parte hartzeko onartua izan ondoren, bere erakustaldirako baimena sinatu eta gero ezin izango zaio parte hartzeari uko egin, eta hornitzaileak bere betebeharrari eutsi beharko dio, hau da, filma ahalik eta ondoen proiektatua izateko erakustaldia material guztiez hornitzea.

## HARREMANETARAKO

Inskripzioari buruzko edozein zalantza izanez gero, idatzi mail bat helbide honetara:

**info@dockofthebay.es**

## EPAIMAHAIA

Jaialdiko Zuzendaritzak izendatuko du epaimahaia, eta zinemaren, musikaren eta kulturaren munduko profesionalak osatua izango da.

Epaimahaiari dagokio erabakitzea zein film sarituko diren. Epaimahaikideen kopurua bakoitia izango da beti.

Jaialdiko Zuzendaritzak Idazkaria izendatuko du eta deliberazioetan esku hartuko du, boto eskubiderik gabe.

# Dock Of The Bay®

## SARIAK

---

Jaialdiak bi sari bat emango ditu:

- Dock of the Bay film luze dokumental onenaren saria, **2.000 euro** (zergak barne)\*.

- Dock of the Bay film labur onenaren saria, **1.000 euro** (zergak barne)\*.

- Gainerako sariak zehazteko daude oraindik.

\*Zenbateko gordin horiei indarrean dagoen zerga-araudia aplikatuko zaie.

\*Film saridunek sari hori aipatzeko konpromisoa hartuko dute, publizitate eta prentsako material orotan eta kopia guztietako kreditu-tituluetan, epaimahaia-  
ren epaia jatorrian idatzi bezala erakutsita eta Jaialdiaren logotipoa erabilita, hala dagokionean.

\*Logotipo hori jaialdiaren webgune ofizialean egongo da eskuragarri.

\*Saria obra lehiaketan inskribatu duen pertsonari ordainduko zaio banku-transferentzia bidez, jaialdia amaitu eta gero.